

# **ECUaren jaulkitzea: analisi ekonomikoaren aplikazio berezia**

**Joseba Tobar-Arbulu**  
EHUko irakaslea

Monetak eta produktuak errealitate bakarra osatzen dute Bernard Schmitt ekonomilariaren arabera. Moneta europarra egon badagoela uste da. Baina benetan ecua kontu-unitatea da. Schmittekin batera, kontu-unitatea eta pagu-unitatea bereiziko dira. Gero, kontu-unitatea pagu-unitate nola bilaka daitekeen adieraziko da. Azkenik, ecuak, Europako Batasunaren benetako monetak, gauzatuko dituen funtzioak erakutsiko dira.

According to Bernard Schmitt money and production form a single reality. People think the ecu (European Currency Unit) does exist. In fact, however, the ecu is an unit of account. Following Schmitt's works, the unit of account and the unit of payment are differentiated. Next, it is explained how the unit of account can become a unit of payment. Lastly, the ecu's functions are cleared.

## Sarrera gisa<sup>1</sup>

Saio honetan zientzia ekonomikoak, irudiz abstraktua, errealitatera, bera eraldatzeko, iristen den helburu garrantzitsua duela erakusten saiatuko gara. Eredurik interesgarriena ECUa (*European Currency Unit*) da, zeina inoiz gauzatzen bada, berorren existentzia fisiokratez geroztik eraikitako pentsamendu ekonomikoari egokituko baitzaio.

Ekonomi zientziaren historian zehar, teorilariak erakusten saiatu dira ezen monetaren eta produktuaren arteko harremana edukin/era bereizketa aristotelikoari dagokiola.

Teoria gutti aritu dira moneta eta produktuaren dikotomiaz. Garrantzitsua den bakarra “koantitatibismoa” da, gaur egun Chicagoko Eskolakoek errepresentatzen dutena. Hala ere, teoria koantitatibo modernoa magnitude nominaletan magnitude errealean “integraziotik” hurbil dago oso.

Gaurko teoria koantitatiboaren eta irakaspen keynestarren arteko oinarrizko desberdintasuna ondasun errealak (produktu eta tituluak) banku-monetari lotzen dizkion ihardueraren analisisian datza:

- (i) Friedman eta berorren eskolakoek ustez, ekonomiaren merkatu guztietako transakzioen egintza da integrazioa;
- (ii) Keynesen iritziz, Schmitten irakurketan (Schmitt 1984a), produkzio-faktoreen merkatu soilean egindako emaitza da integrazioa.

Elkarren kontrako diren jarrera horietatik datozen ondorioak garrantzi handikoak dira. Honela, koantitatibisten aburuz, monetaren erosketa-ahalmenaz ondasun-merkatua alda daiteke. Hala ere, bi eskolak ados daude oinarrizko puntu batean: monetaren erosketa-ahalmena kanpoko da. Hau da, monetak eta produktuak errealitate bakarra osatzen duteneko kontzepzioa da (Schmitt 1984a, Schmitt (ed.) 1985), zeinak egunen batean (agian laster) moneta europarra sortzen lagako duen.

Baina teoriak hamaika oztopo topa ditu, hein handi batean *moneta paralelo* delakoaren aldekoek sortuak. Beraien iritziz, ecuak moneta nazionalekin batera bidean egon beharko luke, hala transakzio nazionaletan nola nazioarteko transakzioetan. “Paralelistek” *The Economist* aldizkarian agiri bat plazaratu zuten (Basevi *et al.* 1975). Bertan agerturiko ideiek jendea nahastu dute eta moneta europarraren sormena atzeratu da ulertezinezko modu batez.

Agian norberak uste dezake moneta europarra egon badagoela zeren edonon ecuaz hitz egiten den eta dibisa-merkatuan kotizazioa baita (Jean 1990). Baina benetan *ecua kontu-unitatea* da.

Hortaz, lehendabizikoz, jaulkipen monetarioaren teoria aipatu eta gero, kontu-unitatea eta pagu-unitatea bereizi beharra dago. Gero, kontu-unitatea pagu-unitate nola bilaka daitekeen adieraziko dugu. Azkenik, ecuak, Europako Batasunaren benetako monetak, gauzatuko dituen

---

1. Lan hau UEUko 1994ko ikastaroan irakurri zen eta Bernard Schmitt ekonomilariaren lanetan oinarritzen da.

funtzioak erakutsiko dira.

### **Jaulkipen monetarioaren teoria orokorra**

Ikus dezagun ekonomia nazionaletan jaulkipen monetarioak nola gauzatzen diren (gogora bedi "nazioa" zentzu ekonomikoan hartua dela, hots, banku zentralaren ingurukoa dena).

Hiru ondorio aterako da:

- Ezein bankuk ezin du *ex nihilo* aktiborik sortu, ezta aktibo finantzariorik ere; beraz, ezein bankuk ezin du erosteko ahalmenik sortu;
- edozein jaulkipen, aldaketa absolutua da: monetan produktu erreala-aren aldaketa (zerbitzu produktiboen merkatua), ondasun errealetan moneta-aldaketa (produktuen merkatua) edo tituluetan produktua-aren aldaketa (merkatu finantzarioa);
- monetaren jaulkipenak banku jaulkitzailearen aldetik jaurgoeskubidea erabat nulua izatera behartzen du.

Hortaz, ecuen jaulkipen-arazoari dagokionean emaitza hauek erabiliko dira:

- Europako Bankuak ez du ezelako (ecutan) erosteko ahalmenik sortuko;
- Europako Bankuaren edozein jaulkipenek ecutan moneta europar baten truke *absolutua* definituko du;
- Europako Bankuak ez du inolako jaurgoeskubiderik bere ecutako jaulkipenetatik.

Europako Bankua jaulkipen-teoria orokorrari egokitu behar zaio. Beraz, Europako Bankuak ecua, banku-monetak jaulkitzeko, betidanik erabili

diren neurrien bidez sortuko du.

(Banku) monetaren edozein jaulkipen erabat hertsiki den eragiketa da: bat-bateko monetaren *sormendeuseztapena* da, eta ez inolako sormen *netorik*. Edozein banku jaulkipenetan sorturiko moneta berehala deuseztatzen dela baieztatzeak hauxe esan nahi du: edozein bankuk sortzen duen moneta bat-batean errekuperatzen du, ezelako denboraren luzapenik gabe, zeren gordailutan berrartzen baitu.

Banku jaulkitzailetik moneta "irten" den aldiunean moneta *sortu* egiten da. Simetriaz, moneta *deuseztu* egiten da banku jaulkitzaileak berrartzen duenean. Hori onartuz, bat-bateko edozein banku-monetaren sormendeuseztapena misteriorik gabeko eragiketa da, honako hau adierazi baitu: banku-monetak edozein unitate, ekonomian "injektatua" izateko aldiunean, derrigorrez bere banku jaulkitzailean ezartzen dela, gordailu honek sorturiko monetaren bapateko deuseztapena adierazi duelarik.

Izatez, banku-moneta zerbait ez-materiala da, eta kontu korrante hartzekodun baten titularitateak bere titularrari uzten dio banku-gordailuzainak beraren izenean gordailuan dagoen adinakoa pagatzea: hortaz, ezarririko moneta-kopurua ez da inongo momentuan gordailugileen ondarean "itzultzten". Honela, *ibilgailu-monetaren* ideia bereganatzen dugu: bankuek ordainketen ibilgailua jaulkitzen dute, eta edozein ordainketak objektu erreala dauka. Bankuek ordainketen saskia edo ibilgailua sortuz, ez dute ordainketen *objektua* sortzen, zeina industriak, hots ekonomiaren iharduera produktiboak, erabat ekoizten baitu.

Hortaz, lehen ondorioa hauxe da, ezein bankuk –komertzial, zentral edo “supranazionalak”– ez du ezelako erosteko ahalmen monetariorik sortzen.

Pagu edo ordainketen *era* edo *forma*, *ex nihilo* sortzen da, *numeriko* delako (jadanik Léon Walrasek libera zenbaki hutsa zela adierazi zuen). Baina paguen objektuak ekoiztua izan behar du, materiala delako. Absurdua da uste izatea erosteko ahalmen positiboa –hau da, produktu positiboa, zeren erosteko edozein ahalmen, produktua edo ondasun erreala baita– sormen monetarioak ekartzen duela.

Bankuek kudeatutako paguetan, saltzaileak harturiko moneta bat-batean banku jaulkitzaileari berreskuratzen dio, eta erosleak banku jaulkitzailetik, pagu-eragiketa berean, gastatzen duen moneta guztia hartzen du. Honela, eroslea saltzaile da banku jaulkitzaileari tituluak saltzen dizkiolako, zeinak beraren izenean *ordaindu* egiten baititu; halaber, saltzailea erosle da banku horri berorri tituluak erosten dizkiolako, zeinak beraren izenean *kobratu* egiten baititu.

Laburbilduz, edozein ordainketa, elkartruke absolutua da, zeinaren objektuak ondasun erreal bezala erabat definitzen baitira, banku-moneta transakzioen era numerikoa besterik ez den elkartrukean, hain zuzen ere.

Bankuen iharduera hori garrantzi handikoa da, Europako Bankuaren kontzepzioa ulertu ahal izateko. Izan ere, Banku hori erakunde *monetarioa* izanen da, eta ez *finantzarioa*. Europako Bankuaren ecuaren eta moneta europarren arteko *elkartruke absolutuen* sarea sortzea izanen da.

## Kontu-unitatea eta pagu-unitatea

Kontu-unitatea zenbakia da. Argi dago ezin dela zenbakien bidez ordaindu: zenbakien lana paguetan zorrak eta kredituak zenbatzea da, eta ez beraiek kitatzea. “100 pezeta edo 10 libera zor dizut” esaten da, 100 pezeta edo 10 libera emanen dizudala esateko: argi dago eroslearengandik saltzailearengana honela iragaten diren 100 pezeta edo 10 libera ez direla kontu-unitateak, pagu-unitateak baizik. Pezetak edo liberak kontaturiko objektuak dira eta ez soilik objektu horien zenbaketa.

Demagun abakoaren bitartez zenbatzen dela: bolak kontu-unitateak dira. Zordunak ez du abakoa apurtzen ordaintzearren: berak bere zorra zenbatzen du abakoaren laguntzaz eta bere hartzekodunari moneta-unitateak igorritz ordaintzen dio. “Esperientzia” honetan, boleak kontu-unitateen errola besterik ez dute jokatu: hau da, agenteek dauzkaten ondasunen ondarearen zatirik ez dutela osatzen, pagutan ezin direla igorriak izan. Paraleloki, moneta konkretua zordunengandik hartzekodunengana pasa daiteke; kontu-unitateak, zorrak eta kredituak determinatzeko erabiliz, “abstraktuak” dira eta ez dituzte agenteen arteko fluxu ekonomikoak elikatzen.

Ecu moneta “paralelo” gisa ulertzen dutenen akatsa, kontu-unitatearen eta pagu-unitatearen arteko nahasketatik dator. Zenbait autorek uste bide dute nahikoa dela kontu-unitate berria definitzea moneta berria jaioa izateko.

Badakigu ecu “moneten saskia” dela. Sinplifika dezagun beraren osaketa eta onar dezagun, soilik

argudiatzeko, kontu-moneta libera batek eta 20 pezetak definitzen dutela. Bi moneten arteko trukearen arabera, liberak saskiaren barruan leku handi samarra edukiko du. Baldin eta, kasurako, 1 libera = 20 pezeta bada, saskiaren erdia beteko du libera batek eta beste erdia 20 pezetek. Ecuak orduan 2 libera edo 40 pezeta balio du. Tentaturik egon daiteke esatera ezen 3 moneta desberdin daudela inplikaturik, hots, libera, 20 pezeta eta ecua bera, hirugarren moneta alegia.

Baina ecua ez da izanen inolako hirugarren moneta, agenteek ez baitute beren abonurako erabiltzen: orduan, libera, pezeta eta ecuen arteko aukera edukiko lukete. Baina aukera hori ez da existitzen. Egiatan, agenteek ezin dute ecutan ordaindu arrazoi soil eta ezinbesteko bategatik: ez dutelako ecurik beren poltsikoetan.

Egia da analisisa pixka bat birfindu beharra dagoela: agenteek ez daukate liberarik edo pezetarik beren poltsikoetan. Moneta modernoa bankukoa da: bera halabeharrez bankuan dago gorderik. Ilogikoa litzateke bankuetan bera deuseztatu den mementura arte etengabe gorderik dagoen moneta (agenteen) poltsikoetan topatu nahi izatea. Banku-bileteak “jendeartean” daude; hala ere, beraiek jaulkipen-Institutuaren pasiboan gorderik dagoen monetaren “zeinuak” besterik ez dira: moneta zentrala ere, naturaz, agenteen hartzekotik apartaturik dago, banku-sisteman beren gordailuetan eduki besterik ez baitute agenteek.

Ondorioztatzen da ezen ecua ez dela bankuetan gorderik dagoen moneta, zeren ez baita inoiz jaulki (honetara laster itzuliko gara).

Ecua ez da (oraingoz) moneta

zeren benetako edozein moneta pagu-unitateen bilduma baita.

Orain, “etorkizuneko historia” egin dezakegu. Etorkizunean, pentsamenduaren historia ere izanen da, zeren ecua ezin baita argitaraturik egon, zientzia ekonomikoak intelektualki lehendabizi arrakastaz “jaulkiko” ez badu.

Politikariek ez dakite nola sor daitekeen moneta europarra. Ekonomilariei dagoekie bidea erakustea.

### **Ecuaren eraldatzea: kontu-unitatetik pagu-unitatera**

Fisiokratez geroz, moneta produkzioari lotu zaio, “zirkuitua” deitzen den eragiketan. Klasikoek analizatu egin dute, gogora dezagun Adam Smithen “Zirkulazioaren Gurpil Handia”. Denbora modernoetan John Maynard Keynesek ere analisi monetarioa eskudiruen zirkulazioan oinarritu du.

Teoria gero eta “sutilago” bilakatu da (Schmitt 1984a), moneta desmaterialdu egin da. Beste aldetik, zirkuitua ez da ulertzen agenteen espazioan moneta-unitateen garraio zirkular bezala; alderantziz, bere zirkuituan monetaren desplazamendua nulua da erabat zeren edozein ordainketa, zirkuitu bukatua baita.

Ecua moneta izan dadin, beharrezko da edozein monetak zirkulatzen duen moduan berak “zirkulatzea”. Irizpidea argi dago: monetaren zirkuitua banku jaulkitzailearen “kreditu-zor” bikoteak eta koerlatibo diren bi eragiketak definitzen dute: (i) agentearen zorra bankuak pagatzen duen kontuarekin, eta (ii) pagaturiko agentearen kreditua.

Deskribaturiko eragiketa triangeluar horretan, eua erabilia izanen denetik, moneta bezala existituko da.

Printzipio handi bat berraurkitu dugu: pagu-moneta soilik ondaintan dago bertan, eta ez ordaintak baino lehenago. Beste era batera esanda, eua moneta sortzeko baldintza beharrezkoa eta nahikoa hauxe da, erakunde bat, bere bezeroen konturako ecutan pagatzeko, ardura dadila.

Hortaz, moneta europarraren atarian gaude. Eua existituko da bera ordaintetan egonen den heinean; gaur, aldiz, eua zenbait ordaintetaren kontu-unitatea da, zeintzuk, beste ordaintak bezalaxe, moneta nazionaletan eginda baitaude.

Honela adierazirik, zientzia ekonomikoaren ikasleak eua egunen batean jaulkia izateko lerro teoriko nagusiak ulertzeko gai dira. "Adituak", ordea, ez daude egoera horretan, zeren beraien buruak adierazpen okerrez beterik baitaude, ekonomiaren errepresentazio dikotomikoan jarriak, moneta ondasun errealetik independenteki hartua izanik.

Beraz, ikus dezagun eua jaulkitzeko analisia zenbait puntutan (Schmitt 1984b,1988):

(I) *Beharrezkoa da Banku europarra eraikitzea.* Ondoko objekzioa ager daiteke: Europako Bankuak, erakunde supranazionala izanik, sor al dezake kide diren herrialdeen subiranotasunarekiko mesfidantzarik? Erantzuna ezetza da, erabat: edozein banku, *bitartekaritza* besterik egiten ez duen erakundea da, eta edozein bitartekaritza, monetarioa edo finantzarioa, ekonomia errealekiko neutro da; bereziki ez da egia bankuek inflazioa

sortzen dutenik (Schmitt 1984a).

Hortaz, bankuko moneta berorren egiazko naturan ulertzen denetik, argi dago ez dagoela ezelako mesfidantzarik: moneta-unitate bakoitza "aktibo-pasibo" bat da eta ez aktibo netoa (paperezko moneta eskritura bakoitza da, berak jatorria dueneko bankuaren balantzea bi aldeetan eramanez.) Honela, Europako Bankuak ez du inolako aktiborik sortuko, ezta nominalik ere, eta, beraz, berak ez ditu finantzatuko edozein herrialderen, ezta Europako kideen ere, erosketak edo inportazio soberakinak.

(II) *Bankuaren helburua eua sortzea izanen da.* Agian uste daiteke euaaren sormena "berezko sortzapena dela". Baina pixka bat pentsatuz, berezko sortzapenaren ideia, hutsala dela argi dago. Izan ere, analisi ekonomikoaren historiak banku-jaulkipenen kontzeptzio zuzenera eramaten gaitu: edozein moneta zirkuitu batera jaulkitzen da; bera deuseztatua da, hortaz, bera sortua den neurri zehatzean.

Baina oraingoz uste daiteke banku-monetaren sormena eta deuseztapena bi eragiketa desberdinak direla, denbora kronologikoan bananduak. Horrela, kasu, bankuak 10 moneta-unitate sortuko lituzke 1994ko Otsailean eta sorturiko moneta birjasoko luke, deuseztatzeko, 1994ko Martxoan: 10 moneta-unitateen sormenaren aldiunetik deuseztapenaren aldiunera doan denbora-tartea, beraiek ekonomiaren barruan ezarriak izango liriateke, non "zirkulazioan" erabiliak izanen bailiratekeen. Gauzak, alta, erabat aldrebes gertatzen dira. Izan ere, 10 moneta-unitateak beraiek sortuak direneko aldiunean bertan deuseztuak dira:

(a) Bankuak ordainketa-kontua egiten duenean, agentei jaulkiriko 10 moneta-unitateak hartzekodunari dagozkio berehala;

(b) baina hartzekodunak ezin ditu bere hartzekoan 10 moneta-unitateak gorde zeren banku-monetaren natura, beraren jatorrizko bankuan gordea izatea baita; horrela, 10 moneta-unitateak bankuan luzapenik gabe ezarriak aurkitzen dira;

(c) beste zehaztasun soil bat gogoratu beharra dago: bera jaulkia izan den bankura itzultzen den edozein moneta, deuseztua da; izan ere, bere jatorrizko bankura itzultzen den moneta bankuak bere kontra egiten duen zorra besterik ez da; honela ikusten da ezen ordainketan sorturiko monetan berehala deuseztua dela berorren azken onuradunarengan; eta azken honek kontu korrante hartzekoduna edukitzen du eta, zehazki hitz eginez, berak ez du moneta jaso.

Hori guztiori lasaigarri da zeren, azken finean, Europako Bankuak ezin beregana baitezake "moneta sortzeko" pribilegioa, baina Bankuak kide diren herrialdeen konturako soilik ordainketak egiteko kargua izango du.

(III) Orduan beste objektio bat sortzen da. Edozein modutan ere, eua ez da sortuko berorren kontzepzioak benetako oztopo-lasterketa garaitu baino lehen. Adieraz dezagun harridura: egia baldin bada Bankuak eua berauen berehalako deuseztapenera daramaten eragiketetan besterik ezin dituela sortu, orduan ez da argi antzematen zein izan litekeen moneta europarraren erabilgarritasuna.

Interesgarria da aipatu dugun

sofisma gainditzeko saiatzeko, banku-monetaren natura berriro gogoratzea. Arrazoi dezagun zuzenki:

(a) Edozein ordainketa bat-bateko eragiketa da; izan ere, banku-monetan pagatzeak kargatua (zordundua) izatea esan nahi du; paperezko moneta objektu kontablea izanik, jaulkipen monetarioetan erabiltzen den kontu biko kontabilitatean, logikoki ezinezkoa da zorra (kargua) ezartzea, berorri dagokion krediturik ezarri gabe; hitz batez, edozein zor kreditu berdinarekin batera doa. Beraz, ezinezkoa da kreditu nuluen aurrean, *aldi baterako izanik ere*, ezarri legokeen zorra sortzea. Ondorioz, zuzena da esatea ordainketa *aldi berean* zorra eta kreditua dela. Lehen kreditaturiko pertsona berari zuzenduriko ordainketaren azken onuraduna ez bada ere, egia da ordainketa denbora hertsiki nulua "kontsumitu" duen eragiketa dela (behin-behineko onuradun baten tartekatzeak soilik esan gura du ezen eragiketa bigarren ordainketa batek osatuko duela, lehena bezain bat-batekoa.)

(b) *A priori*, ordainketan monetak eragiketa baino haratago irauten duen edo ez jakin behar da; ikusi dugu, alta, bera bat-batean deuseztatuturik gelditzen dela.

(c) Sorturiko edozein monetaren bat-bateko deuseztapenaren oinarrian, okerra litzateke banku-monetaren erabilgarritasunik eza ondorioztatzea; izan ere, nahiz eta beraren existentzia aldiune batera mugatua izan, nahikoa da moneta ordainketan aktiboa izatea, zeren paguek berek bat-bateko existentzia hutsa baitute.

(IV) *Bankuari eginkizun zehatza emanen diogu*: kide diren herrialdeen

konturako, ecutan ordaindu behar du, eta berau jaulkipen monetarioa edozein banku nazionalak egiten duen modu zehatzean praktikatu. Hau da, bankuak moneta sortu duen unean bertan, berak, jaulkipen dueneko konturako herrialdearen hartzekodunarengan, sortzen duen edozein moneta bere barruan gordailutan hartuz.

(V) Orain, *jakin beharra dago ze agenterengandik berrar dezakeen Bankuak ordainketa zorduna, eta agente hauen identitatea definitu behar da.* Era soil batez, argi dago herrialde kideak direla. Baina zein da herrialdeak berorien kanpoko munduarekiko harremanetan ordezkatzeko dituen erakundea? Uste daiteke banku zentralak direla; hala ere, beraiek ez daude halabeharrez nazionaldurik, eta egonen balira ere, ez lirarteke egonen estataldurik. Beraz, Finantza Publikoetara, Altxor Publikoetara, jo behar.

(VI) Europako Bankuaren aurrean, *herrialde kideen nazioarteko ordainketak bi "etapa"-tan gauzatuko dira:* egoiliarrek berei dagozkien atzerriko zorrak *beren moneta nazionaletan* ordainduko dituzte; herrialde zordunen Finantza Publikoak txanda hartuko du, nazioarteko espazioan ordainketa eramatearren: kasu honetan, beraz, ordainketa Komunitatearen Bankuak ecutan egiten du, zeinak herrialde ordaintzailearen Finantza Publikoa kargatu (zordundu) egiten duen eta herrialde ordainduaren Finantza Publikoa kreditatu.

(VII) *Ecuaren errol esentziala* laburbiltzearen, esango dugu ordainketa espazioan ecua moneta nazionalen ibilgailu-moneta izanen dela.

(VIII) Hala ere, *ezingo al dituzte partikularrek ecua integratu beren ondareetan?*

Erantzuna eman baino lehen, gogora dezagun ezen ecua erabil daitekeela ordainketa, ecua balio-ondare bezala aurredefinitzea erabat baliagarri izan gabe: aktibo-pasiboak ederki "zirkulatu" dute ordainketa.

Baina galdera sakonagoa da. Partikularrek (familia eta enpresek), balio finantzarioak, akzioak eta obligazioak, erabiltzen dituzte. Ezingo al da egon ecua aktibo neto horretan? Benetan, egon daiteke. Hala eta guztiz ere, bi "erreserba" mota bereizi behar dira. Ingelesa erabiliko dugu arazo horretarako, zeren hizkuntza horrek oso egoki diren bi adierazpen baitauka helburu horretarako: *owned reserves and owed reserves.*

Bera sortzen deneko aldiune berean deuseztatua izanik, ecua ezingo da izan inoiz *owed reserve* delakoa (erreserba zordundua), beti halabeharrez *owned reserve* izanen da (erreserba eskuratua).

Ecuaren eskuratze moduen zehaztapenak eman gabe, nahikoa da esatea periodoz periodo merkatal balantzan superabita izanen duten herrialde kideek ecua hartzekodunen metapen jarraia ezagutuko dutela beren kontu korrontetan Bankuaren aurrean. Ecu horiek herrialde kideen erreserba pribatuetan zein erreserba ofizialetan egon ahalko dira: logikoa ere da beraiek Finantza Publikoak "saltzea" jendeartean.

Ikus dezagun bukatzeko, Europako Banku zentralak jaulkiriko ecuaren garrantzi handiko funtzioak.

Lehen funtzioa hauxe da: Komunitateko herrialde kideen atzerrirako ordainketak ecutan egingo direnetik, ezein aurrezkik ezingo du aldegin bera egin deneko herrialde kidetik. Ondorioztatzen da ezen Finantza Publikoak irabazi hutsetan aurkituko duela merkatal inportazio netoen kopurua edo, kasuari dagokionez, herrialdeen merkatal esportazio

netoen kopurua.

Bigarren funtzioa garrantzi handikoa da, halaber: Ecuaren babesa izanen da zeren Komunitatearen atzerrirako monetetan truke-neurri tinkoa izanen baitu. Dolar erratikoaren amaiera izanen da. Bere aldetik, moneta kideek ecutan truke-neurri tinkoa izanen dute.

## **Bibliografia**

- Basevi, G. *et al.*, (1975): "The All Saints' day manifesto for European monetary union", *The Economist*, 33-38.
- Jean, A., (1990): *L'Ecu, le SME et les marchés financiers*, Les Editions d'Organisation, Paris.
- Schmitt, B., (1984a): *Inflation, chômage et malformations du capital*, Castella, Suisse.
- , (1984b): *La France souveraine de sa monnaie*, Castella, Suisse.
- , (1988): *L'Ecu et les souverainetés nationales en Europe*, Dunod, Paris.
- , (ed.) (1985): *Production et monnaie* [*Cahiers de la revue d'économie politique* aldizkariko ale monografikoa].